

www.noaua.com

Noaua !!



Gaztelekua, berriz ere martxan



100 egun bete ditu Bilduk udaletxean

“Moratoria ezarri bitartean, lanak ahalik eta gehien oztopatzea izango da gure zeregina”



•Santu guztien eguna

Erramuak, zentruak,
koroak eta landaretan
aukera zabala hemen
aurkituko duzu.

Egun osoan zehar zabalik!



Egun osoa irekia •San Esteban auzoa ☎ 943 362 255 Faxes: 943 366 054 • urtinea@urtinea.com

Bertako produktuak! Babarrunak, sagarrak...



Albistea iruditan!

Trukea nagusi, Txokoaldeko igandeko azokan

Denetarik aurki zitekeen, bazen zer daukeratua joan den igandean Txokoalden ospatu zen III. Truke Azokan. Edizioz edizio hazten doa ekimenean parte hartzen duen herritar kopurua, eta geroz eta anitzagoa da azokara eraman ohi duten produktu eta zerbitzu eskaintza. Azoka honetan diruak eta salerosketak ez dute lekurik, trukeak eta elkar laguntzak baizik. Herritarren artean negoziazio eta tratuak gutxien espero zen unean gertatzen ziren. Trukerako prest zeuden herritarrez gain, baziren eguraldi ederrak lagunduta ikusmiran joandakoak ere. Haietako bat baino gehiago penatuta, azokako eskaintza ikusita, etxetik hainbat gai ekar zitzakeela jabetzeko aukera izan baitzuten. Hurrengorako beharko du.



SEI HILABETE BARRU EGINGO DA IV. TRUKE AZOKA.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldúa, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOXE PIÑAS

Colonen aurretik

Pasa den urriaren 12an Colonek Amerika "aurkitu" zuela 519. urteurrena ospatzen zen. Bere iraupenagatik (bi hilabete eta erdi) eta ezezaguna zen ibilbidea egiteagatik, bidaia ausarta izan zela ezin dugu ukatu.

Baina Colonen aurretik Amerikarako bidaia beste batzuek egin zuten. Pentsa dezagun nolako trebetasuna izango luketenen bikingoek, Colon baino 500 urte lehenago Amerikara iritsi zirenean. Bai, frogatuta dago Eriksson (Erik Gorriaren semea) eta bere herrikideak Groenlandiatik abiatu eta Terranovara iritsi zirela. Mende batzuk beranduago, euskal baleontziak arrantzan aritzeko toki berdinerira iritsiko ziren.

Zenbait iturriek diotenez, txinatarrak ere Colon baino lehen iritsi ziren. Esate baterako, Zheng He txinatarrak, XV. mendearen hasieran Amerikara iritsi omen zen. Baina txinatarraren gertutasunagatik eta beraien itsasontziak Colonenak baino hobekak zirelako, ez litzateke harrigarria izango mende batzuk lehenago iritea ere, eta honen lekuko izan litezkeen probak azaldu dira: maskarak, oihalak, itsasontzi txinatarraren arrastoak, material litikoa...

Beste iturriek Maliko Abubakari II., 1300. urtearen inguruan Ertamerikara iritsi zela diote. Honela esklaboen deportazio garaiaren aurretik afrikar zibilizazioaren arrastoak Brasilen zergatik dauden ulertu liteke.

Askoz lehenago, egiptoarrak Amerikan ibili zirela diote beste adituek. Horrela konprenituko genuke momia egiptoarretan nikotinarean arrastoak azaltzea, jakinda garai haietan

landare hau Amerikan bakarrik topa zitekeela. Maya eta Egiptoko kulturen arteko antzekotasuna oso bitxia da ere: gizarte antolaketa, piramideen eraikuntza, bere hildakoen momifikazioan, egutegietan...

Eta horrela jarraituz gero, portugaldarrek, galestarrek, polinesiarrek, indiarrek (Indiakoak), kartagotarrek, feniziarrek eta erromatarrek, Colon aurretik Amerikako lurra zapaldu zutela teoria ezberdinak daudela ikusiko genuke. Norbaitek ironiaz esan zuen bezala, "Colon azkena izan zen" esan dezaiegu.

Baina ezberdintasun handia dago Colon eta besteen artean: hura gelditzeko iritsi zen.

Hala ere, asmo horrekin Amerikara heltzen zen lehenengoa ez zen izan. Inoren aurretik eta 17.000 urte inguru lehenago, Amerika kontinentera iritsi ziren lehenengo gizatiarrak. Hauen ondorengoak eta beraien zibilizazioak topatu zituzten denek, Colon izan ezik: gizonak, emakumeak, umeak, herriak, hiri erlijiosoak, hizkuntzak, nekazaritza, ohiturak, dantzak, arropak, itsasontziak, zeramikazko tresnak, ehizarako tresnak, eta abarrekoak.

Zuzena irudituko al litzazuke amerikar batek esango baliugu lehenengo amerikarrak Europako lurra zapaldu arte Europa ez zela aurkitua izan?

Beraz, bakoitzari dagokiona: Colon ez zen izan lehenengo pertsona Amerika aurkitzen, bere historiako ekarpena "COLON-izazioaren" hastapena izan zen ordea.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

Bazkide izatea baino zerbait gehiago

Benantxio Iruretak helburu sozialekin hasitako bideak jarraipena du oraindik. 36 urteko historia atzean duarik Usurbil FT-k beste urtebetez ilusio handiarekin abiatu du denboraldia. Elkartek orain dela urte gutxi batzuk beherakada izan arren berriro sasoi onean da eta hazten ari da. Besteak beste aurreko denboraldian erregional mailako taldeak igoera lortu zuen, Eskola Kirolean talde askok parte hartu zuten eta denboraldi honetarako berriz, Infantil mailako nesken taldea osatu da eta Nesken Erregional taldea berriro osatzea lortu dugu. Denera 190 haur eta gazte baino gehiagok parte hartzen dute elkartearen jardueretan eta gehien gehienak herriko jokalaria dira.

Lan horretarako eta batez ere kirol

mailako jarduna ondo zuzentzeko elkarrekin entrenatzaile kualifikatuak ditu eta eguneroko lanean kalitatea lortze aldera pausu nabarmenak ikusten ari gara. Gainera entrenatzaileek eta elkarteko zuzendaritzako kideek, gazteek Haranen lagun-giroa izan dezaten esfortzu handia egiten dute astero-astero. Beraz, kirol arloaz gain herrigintzan ere gure ekarpena egiten jarraitu nahi dugu eta horretarako jarduera bereziak eta bestelakoak burutuko dira.

Hori horrela izateko elkarrekin bizi-rauteko beharrezkoa duen masa soziala izatea oinarritzkoa da. Oso zaila gertatzen da atzean afizioa eta laguntza ematen duen masa sozialaren laguntzarik gabe. Zentzu horretan Usurbil FT-n nahiko justu gabilta. Bultzada eta laguntza hori

lortzeko, elkarrekin lagundu nahi duten guztiei deia luzatu nahi die bazkide egiteko aukera eskainiz. Oso garrantzitsua kontsideratzen dugu alor hau eta bereziki eskertu nahi diegu: egingo diren zozketa eta ekitaldietan kontua izango dugula jakinaraztearekin batera.

Zer egin behar da Usurbil FT-ko bazkide izateko?

Caja Rural-Ipar Kutzaren sukurtsalean "Socio Usurbil FT K/K-n" 20 euro ingresatu eta izena eta bi abizenak adierazi. Haraneko tabernan ordainagiria aurkeztuz gero elkarrekin ondo erregistratu eta dagokion oparia banatuko du.

Elkartearen onura, zuen seme-alabentzako onura izango da. Egin bazkide.

Usurbil FT-ren zuzendaritza

Konpostatze komunitarioan lorturiko ongarrria euren etxeetan baliatu ahal izango dute erabiltzaileek

Etxean hondakin zati organikoa autokonpostatzeko modurik ez dutenek, aurretzean taldean organikoa ongarrrian bihurtzeko aukera izango dute, konpostatze komunitarioa bultzatu nahi baitute Usurbil Zero Zabor taldeak eta Usurbilgo Udalak. Proiektuaren nondik norakoan berri eman zuten joan den ostegunean, Sutegiko auditorioan.

Jose Maria Rivadeneyra ingurumen eta nekazaritza alorreko zinegotziak, Ibon Goikoetxea udal teknikariak eta Joxe Mari Irazusta Usurbil Zero Zabor taldeko ordezkariak azaldu zuten, ekimenaren funtzionamendua erraza izango da. Hasteko, egitasmoan interesa duten herritarrek izena eman dezakete jada, Atez Ateko bulegora edo Usurbilgo Udalera gerturatuta. Konpostatze komunitarioa egiteko taldea osatutakoan, Udalak euren herriko gune bat proposatuko die. Gero Udalak egokituko du gunea; itxitura batekin, zoladura egokiarekin eta 150 litroko

beharrezko konpostatzaileak ere jarriko ditu.

Taldeak konpostatzeari buruzko ikastaro bat egin beharko du, eta arduradun bat izendatu. Gero, konpostatze komunitarioan lorturiko ongarrria erabiltzaileek euren etxeetan baliatu ahal izango dute. Bestela, Usurbilgo Udaleko zerbitzuek hartuko lukete. Konpostatze komunitarioan parte hartzen duten herritarrei %40ko hobaria aplikatuko zaie tasetan.

Organikoaren herena, ongarrri bihurtua iaz

Konpostatze komunitarioa egitea ez da kontu berria. Nazioartean leku batean baino gehiagotan burutzen dute konpostatze komunitarioa, joan den asteko aurkezpen ekitaldian azaldu zuten; Flandian, Kanadan, Nantesen... Eta gertuago, Euskal Herrian, baita Nafarroan ere, Iruñea inguruko hainbat udalerritan. Egitasmoan parte hartu izan duten herritarrek balorazio baikorra egin ohi dute.

Egun Usurbilgo ia 500 sendiek auto-



SUTEGIN EGIN ZEN EGITASMOAREN AURKEZPENA.

konpostatzen dute. 2010. urteari lotutako beste bi datu; herrian bildutako hondakinen %38a, gehiena, organikoa izan zen. Hortik herena, %31 autokonpostatu zuten herritarrek, urriaren 13an berri eman zuten. Konpostatze komunitarioari esker, aipatu ehunekoa are gehiago igotzeko aukera egongo da laster.

Andatzakoak, Berriain mendian

Andatza mendi elkartearen deiarekin bat egin zuten 30 mendizalek. Nafarroako Unanuatik abiatu eta Lizarragaraino egindako mendi ibildian zehar, "Berriain mendia igo eta Euskal Herriko erdigune geografikotik" igaro ziren. Orri honetan jaso dugun argazkia eta beste batzuk gehiago www.andatza.com web orrian aurkituko dituzue.



MENDIGOIZALEAK, EUSKAL HERRIKO ERDIGUNE GEOGRAFIKOAN.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

ARRANDEGIA PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

TAXI

607 92 87 70
943 00 44 83

Angel (24h) USURBIL

Lehen 100 egunak bete ditu Bilduk zuzentzen duen udal gobernu taldeak

Udal ordezkari politikoeak kar-guak hartu zituztenetik 100 egun pasa berri dira. Dagoeneko hainbat kontu bideratu ditu Bilduk zuzentzen duen udal gobernu talde berriak. Udal iturrietatik jaso dugu arloz arloko balantze modukoa. Erreportaje honetan duzue, laburbildurik, orain arte egindakoaren berri.

Sekaña eta Agerrazpiko etxebizitzak

Udal gobernu talde berriaren jardue-ra, zati handi batean, hirigintza arlor-a bideratu da. Hala aitortu digute: “Egunero egin beharreko tramite eta burokraziaz gainera, dagoeneko abian jarri ditugu herri honentzako oso garrantzitsuak diren obra batzuk. Horietako bat Sekaña eta Agerrazpiko babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza lanak dira”. Zozketak aurreko legegintzaldi amaieran egin ziren, eta obrak dagoeneko hasita daude.

Sekañan babes ofizialeko 22 etxebizitza egingo ditu Udalak eta Agerrazpin 36. Eremu horretan ere salmenta libreko etxeak egiteko proiektua badago.

GARBIGUNE BERRIA ATALLUN

“Pikaolako gunea ordezkatuko du eta berrerrabilpena sustatzeko bitartekoak ere jarriko dira”

Atalluko Garbigunea

Bestetik, Atallun Garbigunea egiteko lanak ere hasita daude. Udal gobernuak egin duen txostenean dioenez, “hiri hondakin bilketa eta kudeaketarako, urrats garrantzitsua da garbigunea egitea, izan ere, etxean sortutako hondakinak gaika jasotzeko gunea da, atez ateko hondakin bilketan atera ezin daitezkeen mota askotako hondakinak eraman daitezke hara”, besteak beste, altzariak, metalezko gaiak eta elektrotresnertzako gunea izango da.

Orain arteko Pikaola gunea ordezkatuko du. Zerbitzua doakoa izango da.



BABES OFIZIALEKO 22 ETXEBIZITZA ERAIKIKO DIRA SEKAÑAN. HASI DIRA LANAK.

Birziklatzeko diren hondakinak eramateaz gain, berrerrabiltzeko moduan diren objektuak ere eraman daitezke. Berrerrabilpena sustatzeko bitartekoak jarriko dira.

Oiardo kiroldedia

Aurreko legegintzaldian kiroldedia handitzeko lehen faseari ekin zioten, kiroldegiak dituen urte kopurua eta Usurbilgo herriak izan duen hazkundera kontuan hartuta beharrezkoa ikusten baitzen. “Urtebete pasatxo behar izan da lanak amaitzeko eta erabiltzaileak pozik daude berrikuntzekin. Hala ere, jakin badakigu ez dela nahikoa izango, eta herrian oro har orain dauden azpiegiturak azkarregi ez zahartzea saihesteko, beharrezkoa ikusten dugu egungo instalakuntzen mantenu eta antolaketa egoki bat aurreikusten duen plan bat egitea”.

Zerbitzuen alorrean egin dena
Aginagako erriberako bidea osatzeko desjabetza expedientea onartu du Udalak: “Nekazal lanak errazago burutzeko beharrezkoa den bidea izango da zonalde horretan; eta ez baserriarrentzat bakarrik, oinezkoentzat ere paseatzeko ibilbide atsegina baita”.

Erroizpeko urtegian aspalditik dauden isurketak kontrolatzeko asmoz, urtegiko ura jaso da eta garbitze lanak hasi dira.

Donostiako bigarren bialaren lanen

ondorioz kaltetutako bideei dagokionez, Arratzain eta Zelaiaundi arteko bideen konponketak bideratu ditu udalak.

Atalluko erriberara isurtzen diren ur zikinen saneamendu obrei hasiera eman zaio.

Era berean, Zubieta aldeko saneamenduari ekin zaio.

Partehartzea

indartzeko ekimenak

Aurreko legealdian, hainbat aholku batzorde izan ziren martxan. Lehen 100 egunen inguruko balorazioan irakur daitezkeen, laster jartzekoak dira aholku batzorde horiek martxan. Berehalako helburuen artean hauek zerrendatu baitituzte:

“- Herrian parte-hartzea erregulatuko duen araudia gauzatzea, prozesu parte-hartzaileak martxan jartzeko xedez.

- Udalean edo Batzorde desberdinetan aholku batzordeak eratzeko aukerak eta beharrak aztertzea.

- Herriko erakundeen eta herritar taldeen parte-hartzea bultzatze aldera, herrian dauden talde guztien erregistroa gauzatzea”.

Errauste plantaren lanak gauetan eta jai egunetan gerarazi egin ditu Udalak

Bildukoek “errausketarik gabeko hiri hondakinen kudeaketa” bultzatzen dute eta norabide horretan jada lehen urratsak eman dituzte gobernatzan ari diren instituzioetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak baztertu egingo du oraingoz Zubietan errauste planta eraikitzea. Halaber, Foru Aldundiak herrialdeko zabortegei guztiak ixteko asmoa azaldu du. Gaur egun, hala ere, errauste planta eraikitzeke lanek aurrera jarraitzen dute. Usurbilgo udal gobernuak dioenez, “Donostiako udalarekin abiatutako lankidetzaren bitartez, errauste plantako lanak kontrolpean jartzea lortu dugu. Horren ondorioz, gauetz eta jai egunetan lanean aritzea geldiarazi dugu”.

Dena dela, batzuetan debeku horri muzin egin izan diote eta horregatik “zubietarrei eta oro har herritarrei deia luzatu nahi diegu gauetan edo jai egunetan makinak lanean sumatzen badituzte, Usurbilgo edota Donostiako udaltzaingoetara deitzea, enpresa eraikitzaileari expedientea zabaldu ahal izateko”. Mertxe Aizpurua alkateak zuzentzen duen gobernu taldeak egin duen balorazioan hau erantsi dute: “moratoria ezarri bitartean, lanak ahalik eta gehien oztopatzea izango da gure zereginetako bat”.

UDAL GOBERNU TALDEA

“Moratoria ezarri bitartean, lanak ahalik eta gehien oztopatzea izango da gure zeregina”

Honen harira, San Marko mankomunitatea osatu da dagoeneko, eta gune horretatik ere elkarlana abiatuko du Usurbilgo Udalak beste udalekin, “moratoria eta erraustegirik gabeko hondakinen kudeaketa gauzatzeko Gipuzkoan”.

Lan-taldeak martxan

Ingurugiro kontuekin jarraituz,



DONOSTIAKO UDALAREKIN LANKIDETZAN ARI DIRA GAI HONETAN.

Bilduren udal gobernu taldeak hiru lan talde abiatu ditu, “herritarren parte-hartzea sustatzeko. Honakoak dira arloak: nekazaritza, hondakinak, eta naturguneak. Denentzako zabalik daude ateak”.

Hori, orain arte egin dena. Epe laburrera, egitasmo hauek bideratu nahi dituzte:

-Udal baratzak abiatu: tokia prestatuko da eta zerrendak laster irekiko dira.

-Taldeka konpostatzeko kanpaina.

-Autokonpostatze indibidualaren maila hobetzeko kanpaina.

-Kutsadura elektromagnetikoaren ordenantza erredaktatu eta tramitatu.

Parekidetasuna

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko **diagnosia** egin da: arretan parte hartzen duten profesionalentzako (osasuna, udaltzaingoa, hezkuntza, gizarte zerbitzuak...) formazioa eskainiko da ondoren denon artean Tokiko Protokoloa adosteko.

Berdintasun plana abian jarri da. Emakumeen ahalduntzea sustatzeko ikastaroak jarriko dira martxan, bi ikastaro hain zuzen. Harrera ona izan dute, 30 lagunek eman baitute izena.

Emakumeentzako pala ikastaroa egongo da eta hiru talde osatuko dira aurretik.

Zortzi lanpostu berri jarriko dira martxan

Lanbideren bitartez lortutako Ldirulaguntzen eskutik zortzi lanpostu berri jarriko dira martxan urtea bukatzerako. Lanpostuek 3, 5 eta 6 hilabeteko lanaldia izango dute eta langabezia dauden pertsonen zuzenduak izango dira.

Formazioari dagokionez, aurretik ere ileapaindegi eta sukaldaritza ikastarotarako jarriko dira martxan Lanbide Hastapen tailerretan eta pintore ikastarotara ere hasi da.

Hurbilago merkataritza elkartearkin ere esparru akordioa sinatu du Udalak: “2009an Usurbilgo ostalaritza eta merkataritza indartzeko egindako plangintza garatzea izango du helburu eta 2011-12an egingo diren jarduerak definitzea. Apartaleku errotorioekin jarraituko da, fidelizazio kanpainen ere jarraituko dute, merkataritza eta ostalarientzat kalitate arauak ezartzeko ikastaroak abiarazi, formakuntza eta hiri-merkataritza sustatzeko urbanizazio lanak...”.

Euskararen arloa

Euskara ikasten dutenentzako Ldirulaguntzak onartu dira. Guztira 16.500 euro banatu dira.

Usurbil UEMAKo kide da eta zuzendaritza berria osatu da.

Osasun arloa

Kontaktua izan dira Osakidetza arduradunekin, Usurbilek behar dituen zerbitzuak herrira ekartzeko.

Gizarte zerbitzuetako diru laguntzak bideratu dira.

Herriko elkarte sozialekin urte oso-rako hitzarmenak sinatu dira.



ZERBITZUAK HOBETU NAHIAN, OSAKIDETZAREKIN EGON DIRA.

“Hezkuntza saileko Gipuzkoako ordezkariak gezurrak esan ditu”

Arlor arloko balorazioen artean, hezkuntza arlokoei buruzkoak ere egin ditu Bilduk zuzentzen duen gobernu taldeak. Duela hilabete batzuk, “Aukera” izeneko guraso taldea osatu zen, gure herrian eskola publiko bat aldarrikatzeko xedez. Euren egindako inkesta baten arabera, 95 gurasok azaldu dute euren seme-alabak sare publikoan matriculatzeko asmoa, beti ere herrian bertan horretarako eskaintzarik balego. Oraingoz behintzat, ez dirudi Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak horrelako zerbitzurik emateko asmorik duenik.

Udal gobernu taldeak egin duen balorazioan dioenez, hainbat bilera egin dira guraso talde honekin, Hezkuntza Sailaren Gipuzkoako ordezkariarekin eta, Udalak eskatuta, Hezkuntza Saileko sailburuordearekin Lakuako egoitzan. “Gipuzkoako Hezkuntza ordezkariak Eskola Publikoaren egitasmoaren barnean gela batzuk zabaltzeko aukera zegoela esan zigun baina lehen eskutik jakin nahi genuen Jaurlaritzak zer nolako asmoak dituen gure herrirako. Sailburuordeak helarazi zigun mezua argia izan zen: Jaurlaritzak ez duela aurreikusten lokaltan ematea zerbitzua Usurbilen; are gutxiago modu prekarioan”.

ESKOLA PUBLIKOAZ

“Hezkuntza Saileko Gipuzkoako ordezkariak promesa faltsuak agindu ditu, gurasoen nahiarekin jolastuz”

Egoera ekonomikoak baldintzatzen ditu Hezkuntzaren egitasmoak eta epe motzean edo etorkizun hurbil batean behintzat, ez dute modurik ikusten Usurbilen behar den baldintzetan zerbitzua emateko. Honekin batera, eskaera ere luzatu zitzaion Udalari: lurzorua erre-serbatzeko aurrerantzean Eskola Publikoa eraikitzeko herri honetan. “Bitartean - halaxe adierazi zitzaigun eta herriari horrela konprentitu arazteko eskatu zigun Marisol Esteban Eusko Jaurlaritzako sail-



2012AN ERAIKINAREN OBREKIN HASI NAHI DU UDARREGI IKASTOLAK.

buruordeak-, Usurbilgo haurrek sare publikoa bermatuta dute, Usurbildik gertu egon badaudelako eskola publikoak, eta nahi izanez gero, gurasoek hara eraman ditzaketelako euren haurrak”, dio Bilduk lehen 100 eguneko txostenean.

Gai honen inguruan lanean jarraitzeko asmo sendoa du eta Jaurlaritzaren eskaerari erantzuna emango zaiola dio udal gobernu taldeak. Era berean, “salatu nahi dugu Hezkuntza Sailak Gipuzkoan duen ordezkariak gai honi buruz egin duen kudeaketa: gezurrak esan ditu, ez zegoena saldu dio ekimena bultzatu duen taldeari, eta gure ustez, promesa faltsuak agindu ditu, gurasoen nahiarekin jolastuz. Norberak atera ditzala ondorioak”.

Udarregiren eraikin berria

Bestalde, Udarregi Ikastolak eraikin berria egiteko duen egitasmoaren inguruan, hainbat bilera egin dituzte Udalarekin. “Proiektuaren lanak aurrera doaz eta eraikin horren beharra ikusirik eta helburu horrekin adostu zen hitzarmena dela medio, Udalaren laguntza ekonomikoa bideratzeko informazioa elkartrukatzen ari gara egun hauetan”. Ikastolak 2012ko lehen hilabetetan eraikinaren obrekin hasteko asmoa du.

Gaztelekuan 120 lagun

Pasa den urtean martxan jarri zen Gaztelekua. Oso balorazioa positiboa egiten da (bai erabiltzaile, guraso, hezitzaile eta udalaren partetik). Aurtengo ikasturtean ere zabaldu da Gaztelekua DBH 1-2-3-4 mailako gazteentzat. Hasierako ordutegia zabaldu da eta aurtun 120 pertsonak eman dute izena Gaztelekuan.

Gabonetan ireki nahi da Potxoenea

Potxoeneako eraikitze-lanak bukatu dira eta dagoeneko eraikina Udalekoa da. Udal arduradunen esanetan, “ekipamenduaren lanketa egiten ari gara eta laster lizitazioa aterako dugu. Beraz, Gabonetarako irekita izatea aurreikusten dugu”.

Herriko kultur taldeei banatzen diren dirulaguntzak dagoeneko behin betiko onartu eta banatu ere egin dira. Bertan 90.000 euro banatu dira herriko talde guztien artean.



KULTUR ARLOKO ERABILERA IZANGO DU POTXOENEAK.

Kirol instalakuntzetako matxurak, konponbidean

Kiroldegiko obra bere gain hartu Kdu Udalak. Baina azken bolada honetan, kirol instalazioetan matxurak izan dira. Udal iturriek aipatu digutenez, “futbol zelaian lapurtutako argindar kablea berriz ere jarrita dago bertan entrenatzen duten talde guztiak argia izan dezaten. Matxura hauen zerrenda luze bat osatu dugu eta larritasunaren arabera joango gara konpontzen”.

Kirol taldeen diru laguntzak banatu dira. Halaber, ikasturte berriko kirol eskaintza diptiko bidez banatu da etxez etxe. Harrera ona izan du, antzenez, “herritar ugari eman dute izena ikastaroetan”.

Usoa Zumetaren lan grafikoa, Ekain galerian ikusgai

Margolari ezagunen estanzazioak egiten ditu Usoa Zumetak. Serigrafia lana, azken batean. Iaz, garai honetan, Sutegin egin zuen erakusketaren ildotik dator Donostiako Ekain Arte Lanak galerian zabaldu berri duena. Bisitariak Koldobika Jauregi, Juan Luis Goenaga, Nestor Basterretxea, Jose Luis Zumeta, Blami, Judas Arrieta, Miguel Balliache, Rafa Ruiz Balerdi edota Hugh McCarthyren margoetan oinarritutako serigrafiak aurkituko ditu.

Usoa Zumeta etengabe ari da lan grafikoa egiten. Saldu ahala, beste batzuk egiten ditu. Beraz, Ekain Arte Galeriak-en bildu dituen lan asko ez genituen

Sutegin ikusi.

Erakusketa ostegun honetan inauguratu da eta azaroaren 26a bitarte egongo da zabalik. Asteartetik larunbatera, honako ordutegian: 11:30etik 13:30era eta arratsaldeko 17:30etik 21:00etara.


Donostiako Alde Zaharrean dago Ekain galeria, Iñigo Kalea 4 helbidean.

Artelekun ikasitakoa

Arte Ederrak ikasten ari zela, serigrafia ikastaro bat egiteko aukera izan zuen Artelekun. Hori da, gaur egun, Usoa Zumetaren ofizioa.

Jose Luis Zumeta, Gasteizen

Duela gutxi ere, albiste izan da Usoaren aita, Jose Luis Zumeta margolaria. Gasteizko Artium galerian



USOA ZUMETA, IAZ SUTEGIN EGINDAKO ERAKUSKETAN.

erakusketa ireki berri duelako. Artiumek aurrez aurre jarri ditu Carmelo Ortiz de Elgea eta Jose Luis Zumeta euskal margolari ezagunen 46 lan. Bakoitzak bere gela du, eta erdiko esparru batek bien arteko elkarriketa sustatzen du.



“50 familia inguru gara Usurbiltzen taldea osatzen dugunak”

Usurbiltzen Elkarteak 2009ko udazkenean hasi zen lanean. Basherri Taldeen oinarria du ardatz:

- Elikagaien subiranotasuna.
- Bertako produktua.
- Garaian garaikoa eskuratzea.
- Nekazaritza ekologikoa.
- Eredu iraunkorra.
- Parte hartze aktiboa.

Gure taldea abian jartzeko herrian ekologikoan lan egin nahi duten ekoizleak ditugu: baratzezaina eta arrautza ekoizlea. Beste hainbat produktu kanpoko herri eta herrialdeetatik ekartzen dira. Ekoizle eta hartzaileren tratua zuzena izaten delarik, hau da, bitartekariirik gabe. Hala nola: ogia, pastak, mermeladak, arroza, irina, oliba olio, ekilore olio...

Beste erabateko ekintzak ere bideratzen dira Usurbiltzen Elkartetik, besteak beste: hiriko baratzak ikastaroa, ogia egiteko ikastaroak, sukaldaritza ikastaroak, ekoiznemaldia, sendabelarren ikastaroa..... Aurrerantzean ere asmo



2009TIK HONA, HAINBAT IKASTARO ANTOLATU DITUZTE.

hauen ildotik jarraitzea dugu helburu.

Une honetan 50 familia inguru gara taldea osatzen dugunak.

Usurbiltzen Elkartearen kideak hileko lehenengo astelehenetan biltzen gara Artzabalen 18.30ean.

Bertan batzar irekiak ospatzen ditugu. Usurbiltzen Elkartearekin harremanetan jartzeko bidali e-maila helbide honetara:

usurbiltzen@gmail.com

Informazio gehiago eskuratzeko:

<http://basherri.wordpress.com>

Garazi Iturralde Munduko Kayaksurf Txapelketatik bueltan “Kosta egin zen finala irabaztea”

Mundiala irabazita bueltatu dira Nags Head hiriburutik (Ipar Karolina, AEB) kayaksurfeko Euskal Seleksioko kideak, tartean, bi herritar; Xabi Olano eta Garazi Iturralde. Garaipenaren poztasuna egunotan ingurukoekin eta hainbat hedabideekin partekatzen ari dira. Ezin hobeto borobildu baitute denboraldia, baina entrenatzen hasiak dira jada hurrengo mundialerako; Australia 2013rako hain zuzen.

NOAUA! Zer nolako itzulera izan duzue?

Garazi Iturralde. Pozik iritsi ginen Bilbora, hedabideak eta gurasoak bertan zeudela. Itzulera normal bat izan zen, bakarrik sari dezente ekarri genituela. Taldeak urrezkoa eta finalera igaro ginen sei kideetatik sei domina. Hiru urre, bi zilar eta brontze bat.

KAYAKSURF TXAPELKETAN

“Olatuaren tamaina, non eta nola hartzen duzun...”

Hori da epaimahaiak kontuan hartzen duena”

N. Espero zenuten halako emaitzarik edo ezustekoa izan da?

G. I. Ez nuen espero. Nahiko justu ibili ginen. Finalera Ingalaterra pasa zen gure aurretik eta gu beraiekin, baina puntu dezentez atzean geratuta. Finala irabaztea kosta zen, lehenengo postuan geratzeko puntu piloa errekuiperatu behar baitziren.

Itsaso oso txarra zegoen, aurrekoan baino askoz okerrago. Orduan, olatu txikiak ziren baina surfa egiten uzten zuten. Aurten pixka bat handiagoak ziren, baina haizea indartsu zebilen eta olatuek ez zuten ezer egiten uzten. Gainera beste leku batean jokatu da txapelketa. Berez iazko leku berdineran joan behar genuen, baina urakana pasa eta zubia puskatu zuenez, lekuz aldatu zuten.

N. Luze joan zen finalaren eguna?

G. I. Egun osoa. Goizean hondartzara

joan ginen, trastu guztiak atera. Banaka talde guztiak jokatu zuten, eta besteak animatu behar gero. Taldekide bat puntuak zenbatzen, bestea uretan dagoela ia zer egiten duen... Oso luze jo zuen.

Azken taldekideak ikurrina bat txalekoan sartuta zeraman. Irabazi genuela jakitean, ikurrina piloa genituen puntu desberdinetan jarrita.

N. Ingalaterra eta AEB zuen aurkari finalean. Euskal Seleksioak irabazi izanak, mindu al zituen etxeokak?

G. I. Nahiko gustura zeuden. Han ikusten zen gero jendea, guri animatzen. Ez bakarrik euren taldeari. Ingalaterrakoei ez zieten animatzen. Bazen neska ezagun bat urtero joaten dena, berarekin lehiatu nintzen. Bere familia osoa joan zen ikustera. Geuk ateratako kamisetak familia osoak erosi zituen. Ikurrinarekin gu animatzen egon ziren.

N. Zailtasunak izanda, zeintzuk izan dira garaipenaren giltzarriak?

G. I. Bi astez, hamaika pertsona etxe berdinean egon gara. Jokatzeko genuen saio bakoitzeko, gauean etxera joan eta egindakoa ikusten genuen. Entrenatzaileak zuzenketak egiten zizkigun. Uretan geunden artean, hondartzatik taldekideek esaten ziguten zer egin. Entzunez gero ondo, bestela ezer ez.



GARAZI ITURRALDE,
SARIA JASO ZUEN UNEAN.

N. Teknika berririk ikasteko aukerarik izan al duzue?

G. I. Baita grabatu ere, hurrengo Mundialerako hemen praktikatzeko.

N. Tarterik izan duzue lurralde hura ezagutzeko?

G. I. Neurketak ez genituen egunetan, goizetan entrenatu eta arratsaldean hango herriak bisitatu edo dendak ikusten genituen.

N. Hirugarren mundiala duzu hauxe. Alderik sumatuko zenuen, ezta?

G. I. Alde handia. Mundakan, lehenengo urtea zen niretzat eta oso gaizki pasa nuen. Portugalen nahiko ondo aritu nintzen eta aurten hobeto.



KAYAKSURF SELEKZIOA: GARAZI ITURRALDE, AINHOA TOLOSA, OSKAR MARTINEZ, TXEMA KARRETO, XABI OLANO, JULEN SECO, URKO OTXOA, IBON AGIRREZABALA, JULEN ARRIZABALAGA, EDU ETXEBERRIA ETA LUIS ABANDO.

Mikel Lizarralde mediuma Sutegin izango da urriaren 29an

Zer gertatzen da hil ondoren? Nora goaz? Ba al dago beste alderik?, galdera hauen inguruan jardungo du Mikel Lizarralde mediumak Sutegin, urriaren 29an arratsaldeko 18:00etatik aurrera eskainiko duen "bizitza bizitzaren ondoren" izeneko hitzaldian.

Ekitaldia ordea harago joango da, bertaraten den publikoarekin zuzeneko bidentzia erakustaldiak egiteko aukera eskainiko baitu Lizarraldek. Ekitaldirako sarrerak 10 eurotan egongo dira salgai. Izena egunean bertan, hitzaldia hasi baino ordu erdi lehenago eman ahal izango da Sutegiko sarreran. Edo aldeztatik, arratsaldetan 670 027 731 telefono zenbakira deituta.



ZUZENKO BIDENTZIA ERAKUSTALDIA
EGINGO DU SUTEGIN.

Ekitaldia Santuenea Kultur Elkarteak antolatu du.

Inposaturiko jai egun arrotzen aurka elkarretaratu da ITAYA Gazte Asanblada

Joan den urriaren 12an elkarretartzea eta hamaiketako antolatu zituen ITAYA Gazte Asanbladak. Ekitaldiokin, aditzera eman dutenez, bilguneak "espainiar estatuak inposaturiko festa egun arrotza dela salatu nahi du, gazteoi intsumiso jarrera eta mobilizazioetan parte hartzeri bultzatuz.

Ikasle eta langile abertzaleok ez gaude eraso hauek onartzeko prest, ez gure

nazio izatea ukatzen duten egutegiak errespetatzeko, ezta frantziar edo espainiar pertsona gisa hezituak izateko ere. Euskal Herriko ikasle eta langileak gara, nortasun eta izate propioa duen nazio bateko herritarrak gara eta hala bizi, ikasi, hezi eta lan egin nahi dugu".

Jai egun arrotzen aurka eta Euskal Herriak egutegi propioa izatearen alde lanean jarraituko dutela iragarri dute ITAYAKoek.



Liburuak itzultzeko sistema berria Sutegin

Sutegi kultur etxera sartu eta eskuinera biratzen denak gordailu bat topatuko du. Liburutegian maileguan hartutako liburu edota bestelako gaiak itzultzeko modua errazteko jarri du Usurbilgo Udalak. 24 ordutan erabilgarri egongo da, baina zerbitzu hau bereziki, herritarrek liburutegia itxita dagoen uneetarako baliatzea nahi du Udalak. Mekanismoa oso erraza da. Itzuli beharreko materiala ondoko irudian ageri den moduan utzi eta kito. Gordailuak erosotasuna eskaini nahi die, maileguan hartutakoa bueltatzeko liburutegira igotzeko astirik ez duten herritarrei.



LIBURUAREN BIZKARRA
EDO LOMDA AURRETIK SARTU
BEHAR DA, ARGAZKIAN BEZALA.

Martxan da gaztetxoentzako antzerkigintza tailerra

Ikasturte berri honetan ere gaztetxoek antzerkigintzan trebatzeko aukera izango dute. 10-12 urte artekoen taldea osatu da, baina bigarren bat ere martxan jarri nahi dute antolatzaileek, 7-9 urte tartekoa hain zuzen. Izen emateko epea zabalik dago, telefono zenbaki honetan: 685 757 569. Saioak larunbat eguerdiko burutzen dira, ordubetez, 12:30-13:30 artean Bake Epaitegi atzeko lokalean.

Flyschak ezagutzen izan gara

Urriaren 11n Zumaian izan gara 5. mailakook flysch-ak ezagutzen. Trenez joan ginen haraino eta parkean egin genuen hamaiketakoa. Ondoren bi taldetan banatu ginen flysch-ak ikusteko...

Esan bezala, bi taldetan banatu ginen flysch-ak ikusteko, eta batzuek itsasontzia hartzen zuten bitartean, beste taldea herria ezagutzera joan ziren eta baita bertan ia galdu ere! Bigarren txandakook portura hurbiltzean zalaparta ederra sumatu genuen, izan ere lehenengo taldea dantzan zetorren musika topera jarrita zutela. Ondoren lehenengo taldea hondartzara joan zen eta bigarrenak itsasontzia hartu zuen. Itsasontzia asko mugitzen zen olatuen ondorioz. Flysch-ak ere desberdinak dirudite gertutik ikusiz gero: liburutako orrialdeak, eskailera, xerra edota harri zatituaren itxura hartu genion.

GARRANTZIA HANDIKOA

“Mundu guztiko zientzialariak etortzen dira Zumaiaira egitura eder eta zahar hauek aztertzeraz”

Baina gelan alde zurretik ikasi dugunez, flysch-ak bata bestearen gainean dauden harri geruzaz osatzen dira. Liburu bat albo batetik begiratzean orriek izan dezaketen itxura dute.



LH 5 MAILAKO IKASLEAK DUELA EGUN GUTXI IZAN DIRA BERTAN.

Geruza batzuk materia bigunagoz eta besteak gogorragoz osaturik daudelako dute itxura ezberdina.

“Flysch” hitza alemanerazko “fliessen” hitzetik dator eta bere esanahia “isuri” da. Hitz hau suitzar geologo batek erabili zuen lehen aldiz 1827an.

Zumaiako flysch-etan duela 65 milioi urte dinosauruak suntsitu zitueneko meteoritoaren arrastoak gordetzen dira oraindik.

Mundu guztiko zientzialariak etortzen dira Zumaiaira egitura eder eta zahar hauek aztertzeraz.

Itsas ibilaldiaren ondoren denok hondartzan elkartu ginen bazkaldu eta jolas-teko: futbolea, karramarroak harrapatzeko... eta *petankan* ere saio batzuk egin genituen!

Despistatu batzuek ere ipurdia bustia zutela bueltatu behar izan zuten olatuak harrapatu ondoren.

Primeran pasatu genuen. Ea berriz ere irteera batean itzultzen garen!

LH 5. mailakoak

Gaztelekua

martxan da berriz ere

Gaztelekuaren ordutegia Gzabaldu egin da aurten. Gaztetxo batzuentzat, ordea, hauxe izango da Gaztelekura hurbilduko diren lehen aldia. Eta euren gurasoei begira, ate irekien eguna antolatu dute datorren ostegunerako, urriaren 20rako. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, aisialdi-gune honen inguruko hainbat xehetasun ezagutzeko aukera izango dute.

Ikasturtean zehar, honako ordutegia izango du Gaztelekuak:

-Asteleheneretan: 16:30-18:00 artean, DBH 3-4 mailakoentzat eta 18:00-19:30 artean denontzat.

-Ostegunetan: 16:30-18:00 artean DBH 2 mailakoentzat eta 18:00-19:30 artean denontzat.

-Larunbatetan: 16:00-17:30 artean DBH 1 mailakoentzat eta 17:30-19:00 artean denontzat.



GAZTELEKUA, ARTXIBOKO IRUDI BATEAN.

Hitz Ahoren hitzaldia datorren astean izango da

Urriaren 20rako iragarri zuten hitzaldia astebetetz atzeratua izan da. Bertan, familiaren eboluzioa, haurraren garapen ebolutiboa eta garaian garaiko kezak eta beldurrak, ilusioak eta pozak hizpide izango dituzte urriaren 27an Hitz Aho Guraso Elkarteak antolatu duen hitzaldian. Izar Arregi psikopedagogoa arituko da hizlari lanetan, 17:00etatik aurrera Udarregi ikastolako erdiko aretoan.

Hitzaldiak irauten duen bitartean, zaintza zerbitzua izango da. Bestetik, azarotik aurrera burutuko diren tailerren sarrera modukoa izango da urriaren 27ko hitzaldia. Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkartetik ohartarazi dutenez, "azarotan gai hau taldeka kasu praktikoen bidez lantzeko aukera izango da. Tailer hauen datak hitzaldian banatuko dira, bertan izena emateko aukera izango duzuelarik".



HITZ AHOK IAZ ANTOLATUTAKO EKIMEN BATEN ARGAZKIA.

Zubietako Euskal Jaia, dantza eta kantu artean ospatu zen

Zubietta Lantzenek eginiko deialdiari erantzunez, Euskal Jai giroa bizi izan zen urriaren 12an Zubietan. Trikitilariak frontoi eta plaza ingurua girotzen zuten artean, herritarren arreta bereganatu zuen elizako aterpean zintzilikatua zegoen argazki bildumak.

Garai bateko Zubietara atzera begira jartzeko aukera eskaintzen zuen irudi sortak. Jan edanik ez zen falta izan eta 12:30ak pasatxotan, ondoko irudiak erakusten duen moduan, kantu-jira saioa ospatu zen. Abeslariak, antolatzaileak eginiko gonbitarekin bat eginez, baserri-



KANTU TALDEA ZUBIETAN.
URRIAREN 29AN USURBILAN ARIKUNO
DIRA, 19:00ETATIK AURRERA.

